

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

EFEOk Osakidetzan arabera finko dauden profesionalen (Fisioterapeuten) kezka partekatzen du, 55/03 Legearen babespean lekualdatze-lehiaketa baten berehalako deialdia egiteko premiari dagokionez. Horren harira, EFEOk “2016ko abuztuan publikoki iragarri zen” lekualdatze-prozesua bizkortzeko eskaera luzatu die Osakidetzako Zuzendaritzari eta Giza Baliabideen Sailari, langile finkoek alde guztien interesekin bat datozen zerbitzuetan eta kokapenetan jarduteko aukera izan dezaten.

EFEOren iritziz, izaera horretako estrategia batek garrantzi handiko murrizketa ekarriko luke kostu ekonomiko eta sozialetan, erakundearen helburu eta balioetan langileen inplikazio handiagoa erraztuz.

Adierazpen hau amaitzeko, EFEOk argitu nahi du, edukia bere esku dauden bitarteko guztien bitartez zabaltzeko konpromisoa hartu duela, sentiberatasun handiko gai honi buruz duen iritzia jasota gera dadin.